

egunekoa

Oskar Aranda Viso

(Kakitzat Koordinakunde Antimilitaristako kidea)

Armaden aurkako guda deklarazioa

Behin eta berriz lelo berbera errepikatzeaz nazkatu gara: intsumisoen arazoa ez da derri-gorrezko soldadutza desagertzearekin konponduko. Ez dute ulertu nahi gure arazoa armada eta militarismoa direla, eta gure arazoa beraien ere bade-la. Ez dute ulertu nahi, eta, hori gutxi balitz bezala, Joseba Azkarraga jauna intsumiso gaixoen egoera tamalgarriz mintzo zaigu: «Inhabilitatuak, epaiketen zain, eta gainera 7 intsumiso oraindik preso!!! Lotsagarria!!! PP-koak bai maltzurak, eta Eusko Jaurlaritza zeinen zintzoa gazte intsumiso errebelde hauen defentsan».

Justizia eta bestelako kontuetako kontseilari hori, ez al zen zure polizia izan gu atxilotu, zigortu eta espetxeratu gintuena? Ez al ditu zure gobernuak diru laguntzaz saritzen armagintza enpresak? Bai, PP eta PSOErekin bat epaiketa fartsak jasan eta ehunka intsumiso kartzela ezagutzearen ardura ere zuena da.

Herritarren artean nahasmena baizik ez duzue sortzen. Militaristak zarete, armada profesionalaren aldekoak, Trillo eta bere mertzenarioak bezala, baina 3 bilioiko aurrekontuarekin ere profesionalizazioak porrot egin du.

Gobernu Militarren hesietara mozturorurik kateatzen diren neska-mutil utopikoak bagina bezala aurkezten gaituzte komunikabideek, eta nazkatu-rik gaude. Militarismoa desagertzea nahi dugu; armada, gastu militarra, gizarte kontrola eta polizia desagertzea aldarrikatzen dugu. Intsumisioa estatu

espainoleko antimilitarismoaren estrategia arrakastatsua izan zen, bere papera bete zuen eta amaitu zen, baina gure aldarrikapenak ez dira eten.

Gure armak zeintzuk izango diren badakizue: batzarrean oinarrituta antolatzen gara, gure mezua zabaltzeko kontrainformazioa erabiliko dugu, desobedientzia zibil ez-bortitza izango da borrokarako tresna, herritarrak partaide bilakatu eta gizartearen babesa lortuko dugu, eta herri mugimendu eta pertsonen arteko sareak bultzatuko ditugu, zuen erakundeen laguntzarik gabe gizarte aurrerakoi bat sortzeko asmoz.

Guda deklarazioa egina dago beraz, eta hartzaileak gobernuak dira, euskaldun, espainiar edo Ameriketako Estatu Batuetakoak direla ere.

Testuingurua

Derrigorrezko Soldadutzaren desagertpenarekin ziklo bat amaitzen da militarismo zein antimilitarismoaren tzat.

Militarismoarentzat gazteen derri-gorrezko erreklutamendua amaitzen da, eta tropak profesionalizazio edo, Kakitzateko kideek nahiago dugun bezala, mertzenarioz osatuko dira. Ez zuten beste aukerarik, 2001. urtean soldadutzara deitutako 97.000 gazteetatik 5.000 soilik aurkeztu baitira kuartele-tan. Hala ere, ez dute erraza izango: 120.000 soldatapeko lortu nahi zituzten, baina soilik 75.000 lortu dituzte, eta 2002ko aurreikuspenak 84.000ra mugatu behar izan dituzte. Militarrek

argitaratutako CD-ROM batean eten-gabe aipatzen da armadan gazteek lortuko duten prestaketa, kuarteletik irtetean lanpostu ziur baterako bidea izango dena, hau da, ate batetik sartu eta bestetik ateratzeko aukera. Argi dago, beraz, ez dutela gazte hauek betiko militar bilakatzeko itxaropen handirik, eta gaur egungo helburu nagusia estetiko da, armadaren kanpo itxura mantentzea, antimilitaristok eragin diegun kaltea mozorrotzea.

Bizkaira eta Gipuzkoara ez da etorri erreklutamendu autobusik, alde aurretik porrota izango zela bazekiten. Beste porrot galanta Ameriketara dauden estatu espainoleko emigranteen seme-alabei egindako eskaintza izan zen. Argentina eta Uruguaitik etorritako 250 gazteetatik erdiek baino gehiagok prestaketa garaian utzi zuten kuartela, beste lanpostu hobeak lortuta. Hala ere, adi egon beharko dugu krisialdi garai latzetan, bere garaian Guardia Zibilarekin gertatu zen bezala, armada gazte langabeak harrapatuko dituzten sarea bilakatu ez dadin.

Antimilitarismoak, aldiz, garaipen batekin amaitu du ziklo hau, derrigortasuna desagertu baita eta intsumisioa gizarte mugimenduen artean esperientzia arrakastatsua bilakatu.

Gizarte harremanak ulertzeko ezin bestekoa bilakatu da ikuspuntu antimilitarista, NATOren aurkako erreferendum garaian lortu ziren onarpen eta kontzientziazio mailak gaindituz.

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Maritxu Lopepe

Batasun eta abertzale

Badira istorio mingarri batzuk ipuinak bezala hobe dutenak kontatzea. Kattalin neska arrunta da. Euskaltzalea baino politikari ez gehiagokorik interesatzen ez dena. Abertzaleen Batasunaren karta hartu du hala ere duela bost hilabete, lagun batek erran-eta puntu inportantak trenkatuko zirela laster. Ondorioz, erraten eta pasatzen ziren gauzen behatzen hasi da. Abertzale mugimenduan zatiketa irriskuak bazirela hasiak ziren kezkatzen jende anitz. Egoera larria zitekeen ikusiz zer eztabaida beroak pizten ziren ostatu eta besta leketan.

Azkenean, Uztaritzen berrehun jendez goiti bildu zen egun hartan, bozkaldi batek denak argitu zituen. Kattalinek Batasunaren alde bozkatu zuen, gutiengo batek bezala. Bazirudenez ABren abiadura ez zitzairen Batasunekoei aski ernea agertzen, honi eta AB barneko tendentzia bakoitzari, eta bereziki bereari, indar gehiago eman nahi zion. Bozkaldiaren emaitza edozein izanik ere funtsean.

Zergatik ez, pentsatu zuen Kattalinek, hobe holako osaketa militante horien galtzea baino. Gainera, zenbait minutu berantago biltzar nagusiak erabakitzen zuen elkarlana segituko zela esker abertzaleko indar guziak batuz. Eta Kattalin lasaituz. Duela zenbait egun, Kattalinek irakurri du kazetan ABren arduradunek ziotela logikoa zitekeela Batasunekoak ABtik ateratzea, omen %18 zirela. Jes, pentsatu zuen, orduan Batasunaren alde bozkatu genuenak Batasunekoak gara eta ez dugu AB baitan egotetik?... Irakurketa segitzean jakiten du ere ondoko hauteskundeetan hautatu beharko duela ezker abertzaleko bi hautagaien artean. Mattin bere laguna, ABrentzat bozkatu izanik ere urrian, berdin kezkatua da. Hautatu behar ote dute abertzaleen arteko zatiketaren plantatzen norbaiten alde jarritz? Ala etxean egon ardurarik ez izateko desastrean? Baina etxean egonez ere desastrea kataklismo bilakatzen laguntzen dute. Aterabidea zein ote dute?...

seiko urrea

Mattin Irigoien



Loft istori

Batasungintza pil-pilean dugu ipar-ekialdean. Orduan: Batasunak (alderdiak) batasunaren (kontzeptua) deialdia egin dio ABri. Abertzaleen Batasunak (alderdiak) nahi duten abertzaleen batasuna (kontzeptua) jada egiten duela erantzun dio. Bat-tak besteari batasunaren (kontzeptua, eta alderdiak ere ongi pentsatuz) haustea egotziko dio bakoitzak bere aldetik.

Nik, Cousteau komandantearen gisa, *the future generation*ei buruz itzultzen dut ikusmira. Normala da gaurko gazte-riak ere jasta ditzan manikeismoaren reflexe baldintzatuak, izpirituarentzat hain pausagarri direnak. Gaixtoak besteak dira, eta ez dute erraten dutena egiten: batasuna hots! (kontzeptuaz ari

naiz hor, ... ba eta alderdietaz ere nas-ki... ba, *merde*).

Igan urtetik, mugimenduan den gazte orok bere erlazioak birplanteatu behar izan ditu eta alderdi bat hautatu. Mugimenduan izatetik (sentsu literalean ere uler daiteke) banda izatera heldu dira, ideien eta posturen koherentzia beren ontasun zela konbentzitu, ideia totalen barnean igerika hasi, kontzeptuak alderdi bihurtu, alderdiak kontzeptu hutsalduen errepikatze pertsona sare. Orain, bizpalau hilabetez, orgasmoraino helduko gira logika huntan, alderdi etsaigoa herraren lekaz olioztatzen hasiko baitira.

Ez dugu xantzarik izan hastetik, monoteismoan bataiatu artalde otzanok!

kornerra

Mikel Elorza

Kontrakantxatik

Atzo zenbait nafarren kezkatat aurkeztu nuen Barriola afera. Neu horietako bat; kezkatuetako bat, esan nahi dut (eta Nafarroa Osoko kide naizen aldetik, nafar ere bai, esaten dute; ez dadila inor asalda). Pilotazaleaz gain gatazkazalea ere bai bainaiz. Ez bihurrera har esaldia: pilotarien erantzunak jakin-mina piztua zidan. Kirol alorrean nekez ikusten baita langile protestarik, halako arrazoiengatik bederen —porrot egindako taldeetan izan ohi da—. Nahiz eta ez dugun ahanzi behar hain zuzen pilotaren munduan gertatu zela herri honek izan duen grebarik luzeenetako bat. Protesta egin du Eskutik-ek, pilotarien sindikatuak: txapelketen antolamendu eta egiturak zaharrituta daudela. Protesta *xumea*. Sindikatua oraingoz ez baitago bere izenak adieraz dezakeen tokian. Eta izan dezatela argi ez diotela emango; hartu egin beharko du.

kornerra@egunkaria.com